


LITERATURA. Elkarrek argitaratu duen liburuak Joseba Jaka beka eskuratu zuen; epigramak eta eglogak dakartza



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Anjel Erro idazlea, *Eta Harkadian ni* poema liburuak aurkeztu aurretik.

Anjel Errok lehen poema liburuak eman du argitara, klasikoa baina garaikoa

‘Eta harkadian ni’ izeneko poemarioa literatur erreferentziaz beteriko lana da

Ainara Gorostizu | DONOSTIA

Denak Arkadian bizi dira, zoriontsu, ardiak zaintzen, eta euren amodio kontuak abesten dituzte. Eta Anjel Erro (Burlata, 1978) Harkadian bizi da, harri eta harkaitz asko dagoen tokian. *Et in arcadia ego* hura izan du erreferentziatzat idazle burlatarrak egungo eta betiko gaiez poesia liburuak apailatzeko. Arkadia idilikoarekin kontrajarrikerik deserri harritsua deskribatzen du. Elkarrek eman du argitara, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren laguntzarekin, Joseba Jaka beka irabazi baitzuen lan honek.

Egitura klasikoetan, barroki-moz jantzirik 101 epigrama eta

hiru egloga bildu ditu Errok. Greko-erromatarren egiturak hartu eta XXI. mendeko ideiekin hornitu ditu, «poetika zaharberritzailez». Hala deskribatu zuen Jose Austin Arrieta idazleak —Joseba Jaka bekaren aukeraketan epaimahaian egon zen—. Zaharberritzailea izateaz gain, «ausarta, gaien aldetik gazi-gozoa eta jantzia» zela adierazi zuen Arrieta.

Horazio eta Martzial bezalako klasikoa «kalkaturik eta espresuki aipaturik» dakartza liburu honek. Euskal letren errepublikan oso gutxi jorratu den arloan sartu da estreinako libururekin Erro; «ekarpen interresgarria da hori gure letrentzat», Arrieta irudiko. «Za-

hagi zaharrean ardo berria sartzea arriskutsua» delako adierazi zuen idazleak Anjel Erroren lana ausarta zela.

Maitasuna bezalako gai «humanoak» jorratzen ditu, «oso modu duinean», *Eta Harkadian ni* poema bildumak. Eta ironia da nagusi, eta umorea, eta satira. Maitasunaz mintzatzen eta poesiaz idaztean.

Erreferentziak eta erreferentziak

Baina atalez atal, poemaz poema, jantzi eta hornitu duten idazleak bistaratzen ditu Errok. «Bertsolariek dioten moduan, almazena oso ondo betea du, erreferente literario eta kultural ugari ditu», adierazi zuen aurkezleak: «Nabaria da asko irakurritako mutila dela».

Gure literatura, literatura unibertsala eta klasikoa «oso ondo ezagutzen ditu», eta horiek

ANJEL ERRO

Idazlea

«Ez dut betiko klasikotzat hartzea nahi; hurrengoan ni barroko batez ariko zarete, eta noizbait iritsiko naiz garaikide izatera»

ematen diote bide joko intraliterarioak egiteko; hala, bada, «*Oraindik gogoan dut noiz leitu nuen Dostoievskiren Kirmen y Castillo*», irakur diezaiokegu, unibertsaltasuna etxekoarekin uztartuz. Espresuki aipaturiko jolas horiez gain, lerro artean, zurian, beste erreferentzia gehiagorekin egiten du jolas Errok Harkadian, «lerro bakoitza desafio bat baita». Bista zorrozteaz gain, belarria gertatu beharreko liburuak idatzi du burlatarrak, klasikoa, garaikoa edo unibertsalen oihartzunak baitakartza.

Nabarikoa da gazte jantzia dela, zuzenbidean lizentziatu ostean euskal filologia estudiatzen ari da, egun, eta baliabide estilistikoak, aliterazioak batik bat, erruz aurki ditzake irakurleak.

Baina badu ahotsik poeta honen. Gutxi hitz egin zuen aurkezpenean, baina anitz esan. Idazleak betiko klasikotzat ez hartzea eskatu zuen: «Agian hurrengoan ni barroko batez ariko zarete hizketan edo ni errenazentista batez, eta noizbait iritsiko naiz garaikide izatera».

Errok ez du sekula idazle gazteen banda batean parte hartu, baina haien «aldeko eta taldeko» dela dio egloga batean. Klasikoek artzain eta artzaintsen amodiozko solasak moldatzen zizuten eglogetan; Errok, berriz, hiru elkarrizketa asmatu ditu, eta poeta gazteekikoa da bat.

Etxeberriak bost idazleri egindako elkarrizketak gaztelaniratu dituzte

Erredakzioa | DONOSTIA

Hasier Etxeberria idazle eta kazetariak Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria eta Joseba Sarrionandiarekin izandako elkarrizketak gaztelaniaz eman ditu argitara Alberdaniak *Cinco escritores vascos (Entrevistas de Hasier Etxeberria)* izenburupean. Euskaraz arrakasta eta kritika onak izan dituen liburu hori atzo aurkeztu zuten.

Joan Perucho kataluniarrak Espainiako Letren Saria irabazi du

Europa Press | MADRID

Joan Perucho idazle kataluniarrarentzat izango da aurtengo Espainiako Letren Sari Nazionala, bere obra guztia errekonozituz. Hala jakinarazi zuen atzo Fernando de Lanasek, Espainiako Liburu, Artxibo eta Liburutegien zuzendari nagusiak, epaimahaiko presidenteak. De Lanasen alboan, Luis Gonzalez Martin, Gregorio Salvador, Andres Fernandez, Andolin Eguzkitza, Joaquin Mallafre eta Francesc Parcerisas zeuden, besteak beste.

> Artista berrien XL. lehiaketa

2003

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak Artista Berrien XL. Lehiaketa deitzen dute.

Alorra: Ikus-entzunezko arteak

Sariak: 7.000 €-ko bi sari

Parte hartzaileak: 20 eta 32 urte bitarteko gipuzkoarrak

Izen emateko epea: 2002ko abenduaren 13 arte

Informazioa:
www.begira.com
sala@kultura.gipuzkoa.net
tel. 943 482750
943 000850



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



kutxa
gizarte ekintza
obra social

ordaindu

FRONTA

gozatu

BIKOITZA

BIKOITZA

Abenduaren 2-tik aurrera lor itzazu

TEATRO ANTZOKIA

ARRIAGA

BILBAO

% 25etik
% 50erainoko
deskontuak

Abenduaren 2-tik aurrera lor itzazu

bbk

IMQ

FCC